Aretxabaletako Udala

ARETXABALETAKO ADINEKOENTZAT AUTONOMIA SUSTATZEKO ESPAZIOAREN ZERBITZUA ESKAINTZEKO BALDINTZA TEKNIKOAK.

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Baldintza plegu honen xedea da Aretxabaletako adinekoentzako Autonomia Sustatzeko Espazioa-Zerbitzua kontratatzeko baldintza teknikoak zehaztea.

Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak Eguneko Arreta Zerbitzua ezartzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen katalogoaren zati gisa, eta zehazten du, gainera, lehen mailako arretako zerbitzua dela (22.1.2 artikulua) eta zerbitzu hori ematea udaletako Gizarte Zerbitzuek bermatu behar dutela.

Autonomia sustatzeko espazioan emango den zerbitzuak erabiltzaileen autonomiari eusten lagundu behar du, eta zeregin horretan –eta zerbitzuaren beraren kalitatean– arreta ama-hizkuntzan jasotzeak duen garrantzia kontuan hartuta, zerbitzua ematean erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatu beharko dira. Izan ere, osasun-arretan funtsezko elementu bat da hizkuntza, eta zentzu horretan, ezinbestekoa da erabiltzaileek aukera izatea ondoen moldatzen diren hizkuntzan artatuak izateko

.

Baldintza-plegu honetan eta baldintza ekonomiko eta administratiboen pleguan jasotako xedapenek arautuko dute lehiaketa.

2.- EZARRI BEHARREKO ARAUDIA

Zerbitzua honako hauetan ezarritakoaren arabera emango da:

- ✓ Baldintza Teknikoen Plegua eta Baldintza Ekonomiko eta Administratiboen Plegua.
- ✓ 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- ✓ 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzkoa.
- ✓ 64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa, EAEko Gizarte Zerbitzuen Erabiltzaileen eta Profesionalen Eskubideen eta Betebeharren gutuna eta Iradokizun eta Kexen Erregimena onartzen dituena.
- ✓ 1/2023 Legegintzako Dekretua. martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testu bategina onartzen duena.
- ✓ Eguneko Arreta Zerbitzua arautzen duen Udal Erregelamendua (Udalbatzak 2024/05/15ean onartutakoa, GAO 2024/07/12)
- ✓ Zerbitzua emateko kontratua.

3.- ZERBITZUAREN HELBURUAK

- Aretxabaletako Udalerrian zaurgarritasun eta hauskortasun-egoeran dauden eta/edo mendekotasun arina duten 65 urtetik gorako pertsonei laguntzea, beren ohiko bizimoduarekin jarraitu ahal izan dezaten eta komunitatean modu aktiboan mantendu ahal izan daitezen, hala badagokio, isolamendu- eta bakardade-egoerak arinduz.
- Gizarte- eta harreman-funtzionamendua indartzea, haren narriadura eta/edo okerragotzea saihesteko: komunikazioa eta taldeko kide izatearen sentimendua sustatzea, gizarte-isolamendua saihestuz, eta balizko harreman-gatazkei aurre egiteko estrategiak sustatzea.
- Espazio honek gune komunitarioetara joateko aukera ematen die pertsonei, eta horietan, intentsitate txikiko laguntza duten jarduerak eskaintzen zaizkie, beren arreta-premia espezifikoei lotuta.
- Funtzio psikoafektiboen eremua indartzea, narriadurarik ez izateko, balizko depresio-sintomatologia prebenitzeko eta/edo arintzeko, eta balizko antsietate-egoeren ondorio negatiboak prebenitzeko.
- Funtzio kognitiboen arloa indartzea haien narriadura eta/edo okerragotzea saihesteko: gaitasun kognitiboak estimulatzea, hala nola konzentrazioa, arreta, hizkuntza, kalkulua, orientazioa eta memoria.

- Funtzio fisikoen arloa indartzea, haien narriadura eta/edo okerragotzea saihesteko: oinarrizko mugikortasunari eustea; artikulazioen malgutasunari eta muskulu-potentziari eustea; koordinazio- eta oreka-gaitasunak lantzea; eta eskuzko gaitasunak garatzea.

4.- HARTZAILEAK

Oro har, zerbitzuaren hartzaile izango dira udalerriko adineko pertsonak Gizarte Zerbitzuek bideratuta daudenak eta intentsitate txikiko laguntza behar dutenak zerbitzuak artatutako premiei erantzuteko.

Pertsona horiek honako ezaugarri hauetako batzuk izan beharko dituzte:

- ✓ Aretxabaletan erroldatuta egotea.
- ✓ Zerbitzuan sartuko dira:

  Lehenik eta behin:
  - Hauskortasun-, ahultasun-, bakardade edo mendekotasun arineko arriskuan edo egoeran dauden 65 urtetik gorako pertsonak (1. gradua, MBBn 25 eta 39 puntu artean lortu dutenak), betiere haien osasun psiko-fisikoaren egoerak aukera ematen badie intentsitate txikiko zerbitzura behar bezala egokitzeko eta hori nahikoa bada haien beharrak asetzeko.

  Bigarrekin:
  - Mendekotasuna aitortu barik duten 75 urtetik gorako pertsonak, 25 puntutik behera MBBn eta egoera ahulean.

  Hirugarrenik:
  - 65 urtetik gorako pertsonak, isolamendua, bakardadea, abandonua, tratu desegokia izateko egoeran edo arriskuan daudenak.

Zerbitzua erabiltzeko eskubidearen murrizketak: Erabiltzaile hauek ezin izango dira zerbitzuan sartu:

- Gaixotasun infekzioso -kutsakor bat izanez gero, hura osatu arte.
- Portaera nahasmenduak izanez gero eta/edo zerbitzuaren funtzionamendua edo bizikidetza normala larriki aztoratu dezaketen portaerak izanez gero, edo portaera horiek arriskua ekarriz gero pertsonari berari, beste erabiltzaile batzuei edo profesionalei.
- Osasun laguntza espezializatua eta/edo iraunkorra behar badute, zerbitzuaren berezko hornikuntzen irismenetik eta aukeretatik kanpo.

5.- ZERBITZUAREN ERABILTZAILE-IZAERA ESKURATZEA ETA GALTZEA

Autonomia sustatzeko udal zerbitzuaren eskatzaileen zerrendan sartzeko, interesdunak eskaera egin beharko du udal Gizarte Zerbitzuetan.

Eskaera ikusita, Gizarte Zerbitzuek txosten bat egingo dute, banakako arreta-planari buruzko alderdiak zehaztuz eta eskatzaileak zerbitzuan parte hartzeko proposamena jasoz.

Proposamena aztertu eta baloratu ondoren, udal organo eskudunari igorriko zaio, zeinak ebazpen arrazoitua emango baitu, eskatutako zerbitzuan sartzeko eskaera onartuz edo ezeztatuz.

Onartuz gero, interesdunak astebeteko probaldia izango du inolako konpromisorik gabe.

Era berean, egokitze hilabetea igaro eta gero, kasuaren arduradunak ebatziko du interesdunak erabiltzaile izaten jarraituko duen edo ez, enpresa adjudikaziodunaren profesionalak egindako egokitze txostenean oinarrituta.

Zerbitzuan erabiltzaileren batek ezin duela jarraitu baloratu eta erabakiz gero, udaleko gizarte zerbitzuetako ordezkariak eta enpresako zerbitzuaren garapenaz arduratzen den profesionalak erabiltzaileari-edo ordezkariari- proposamenaren berri emango diote.

6.- ENPRESA KONTRATISTAK EMAN BEHARREKO ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK

6.1.- **Zerbitzuaren prestazioak**:

- Harrera eta informazioa: erabiltzaileei eskubideak eta zerbitzua ezagutzeko aukera ematea, garaiz eta behar den moduan.
- Banakako programazioa egitea arreta pertsonalizatuko plan baten esparruan
- Erabiltzailearen jarraipena eta balorazioa
- Gizarte-laguntza
- Esku-hartze sozioedukatiboa eta psikosoziala
- Estimulaziokoa edo errehabilitaziokoa: trebetasunak, jarduerak eta eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko gaitasunak estimulatzeko ariketa errazak garatzea, autonomia sustatzeko tailerrak, estimulazio kognitiboko egitarauak, ohitura osasungarriak sustatzeko programak…
- Hezitzailea: aisia, hezkuntza- eta kultura- jarduerak

Eskaintzen diren prestazioak garatzeko, kontuan hartuko da genero-ikuspegia (emakumeen eta gizonen egoera, premia, interes, jomuga eta arazo espezifikoak, batzuen eta besteen arteko desberdintasunak eta askotariko diskriminazioa jasaten duten emakumeen egoera), eta baita emakumeei eragiten dieten desberdintasun sozialak ere.

6.2.- **Ordutegiak eta arreta-egunak**

Zerbitzua Aretxabaletako Errekabarren 12ko udal eraikinean egokitutako lokalean eskainiko da.

Talde bakoitzean 14 lagun egongo dira gehienez, eta enpresa kontratistak zerbitzua emateko izendaturiko profesional batek zuzenduko du taldea.

Zerbitzuan interesa duten herritarrak egonez gero, astebeteko probaldia egiteko aukera emango zaie, eta epealdi horietan 14 laguneko muga gainditu ahal izango da.

Zerbitzua astelehenetik ostiralera emango da (salbu eta jaiegunetan eta Aste Santuan, Pazko Astean, abuztuan eta abenduaren 24tik urtarrilaren 6ra bitartean, biak barne), goizeko taldea 10:00etatik 13:00etara, gehi ordu eta erdi, saioa prestatu eta antolatzeko, eta erabiltzaileekin edo familiekin beharrezko elkarrizketak egiteko. Udalak ordutegiak aldatu ahal izango ditu beharren eta eskariaren arabera, bai eta zerbitzuaren erabiltzaileen interesen arabera ere. Aldaketa hori behar besteko aurrerapenarekin jakinaraziko zaio enpresa esleipendunari.

Egutegia urtero finkatuko da, irailetik hurrengo urteko uztailera bitartean. Erabiltzaileen beharrei erantzuteko, abuztuan zerbitzua eskaintzeko aukera aztertu ahal izango da.

Aretxabaletako Udalak, arestian aipatutako ezaugarriak egokitu ahal izango ditu zerbitzuaren eta erabiltzaileen beharretara, eta, era berean, talde kopurua aldatu ahal izango du eskaera kopuruaren arabera.

Eskumen horietako bat bera ere ezin izango zaio esleitu, interpretatu, lekualdatu edo eskuordetu Gizarte Zerbitzuen Saila ez den beste erakunde bati, eta azken honek bere langileen bidez gauzatuko ditu eskumen horiek.

7.- ANTOLAKETA

Kontratatutako zerbitzua Udal Gizarte Zerbitzuen Sailari atxikita egongo da, eta gizarte-langile bat izendatuko da zerbitzu hori koordinatu eta gainbegiratzeaz arduratzeko.

Bere zereginen artean, besteak beste, honako hauek nabarmentzen dira:

- Udalerriaren beharrak antzematea
- Araudia egitea
- Zerbitzua ematearen ondoriozko publizitatea gainbegiratzea eta kontrolatzea
- Zerbitzuan sartzeko eskaeren diagnostikoa eta beharren balorazioa.
- Sartzeko eskaerak ebaztea eta zerbitzua esleitzea
- Erabiltzailearentzako arreta planifikatzea

- Erabiltzailearen ekarpen ekonomikoa zehaztea
- Erabiltzaileen egoeraren jarraipen orokorra eta zerbitzuaren kalitatearen ebaluazioa
- Zerbitzuan alta emanda dauden pertsonak, behin betiko baxak eta aldi baterako eteteak zehaztea eta erakunde esleipendunari jakinaraztea.

8.- ZERBITZUAREN EDUKIA ETA METODOLOGIA

Diseinatu eta gauzatu beharreko programaren jarduerak, Udalak izendatutako kontratu-arduradunak onartu ondoren, honako tipologia hauetara egokituko dira:

- Osasuna sustatzekoak
- Osasun kognitiboa sustatzekoak
- Gizarte-harremanak eta integrazioa sustatzekoak
- Jolas-izaerakoak eta eskulanak.

Zerbitzuaren esku-hartze eremuak honako hauek izango dira:

- Banakako eremua: pertsona bakoitzari zuzendutako esku-hartzea, bakoitzaren baliabideak eta aukerak ezagutzeko, eta jarduerak benetako gaitasunetara egokitzeko.
- Talde-eremua: parte- hartzaileen arteko gizarte harremanak sustatzeko tailerrak eta jarduerak.
- Eremu komunitarioa: adineko pertsonak zerbitzua kokatuta dagoen tokiaren dinamikan eta ingurunean integratzea erraztuz.

Zerbitzua emateko erabiliko den metodologia gaitasunen ereduan oinarrituko da eta parte hartzailea, aktiboa, didaktikoa, elkarrizketan oinarritua eta malgua izango da, eta adineko bakoitzari zein taldeari zuzenduta egongo da, bai eta haien interes eta bizi kalitatearen hobekuntzari.

9.- GIZA BALIABIDEAK

Enpresa esleipendunak beharrezko diren giza baliabideak izan beharko ditu zerbitzua modu egokian eskaintzeko. Pertsonal kostu guztiak bere gain hartu beharko ditu eta langile horiek ez dute, inola ere, Udalarekin administrazio-loturarik izango. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango enpresaren eta bere langileen arteko harremanetatik sortutako erantzukizunengatik.

Zerbitzua emateko zuzenean lan egingo duen lantaldea honela osatuko da:

9.1.- Zuzeneko esku-hartzeko langilea

Profesional hori arduratuko da saioak egiteaz, eta bere eginkizunak honako hauek izango dira:

- Zerbitzuaren plangintza, jarduera guztiak zehaztu eta garatzea.
- Zerbitzuaren programazio orokorra diseinatzea eta Gizarte Zerbitzuen Sailera bideratzea, gauzatu aurretik onar dezan.
- Zerbitzua emateko behar diren pertsonak kontratatzea eta arretako langileen egonkortasuna bermatzea.
- Zerbitzuko erabiltzaile bakoitzarekin landu beharreko banakako esku-hartze plana diseinatzea eta eguneratuta edukitzea.
- Egokitasunari, gorabeherei eta bertaratzeari buruzko txostenak egitea, generoaren arabera bereizita.
- Zerbitzuaren erreferentziazko arduradunarekin aldizka koordinatzea, zerbitzuaren martxari buruz, oro har, eta erabiltzaileen egoerari buruz, bereziki, beharrezkoa den informazioa helarazteko. Era berean, eta erabiltzaile baten egoerak hala eskatzen baldin badu, udal gizarte zerbitzuekin koordinatuko da.
- Telefono edo posta elektroniko bidezko etengabeko komunikazioa ahalbidetzea. Espazioari, taldeari edo erabiltzaileren bati buruzko edozein erabaki hartzeko, lehendabizi, udal gizarte zerbitzuekin kontrastatuko da zein den egoera, eta haiek hartuko dute dagokion erabakia.
- Etengabeko ebaluazioa erabiltzea, programaren garapenean.

- Programan parte hartzen duten pertsonak motibatzea, taldekide sentitu daitezen eta bertaratze eta partaidetza handia lortzeko izan ditzaketen zailtasunak gainditu ditzaten.
- Jarduera errazten eta estimulatzen duen giroa sustatzea saioetan, parte-hartzaileen autonomia sustatzea, haien parte-hartzea sustatzea eta ingurunea kontrolatzea.
- Jarduerak garatzeko eta instalazioak behar bezala erabiltzeko beharrezkoak diren materialak lortzea eta taldearen esku jartzea.
- Programaren kudeaketan eta jarraipenean, ikuspegi komunitarioa txertatzea, tokiko elkarteekin eta/edo udaleko hainbat arlotako teknikariekin koordinatuta, taldearentzat edo taldeko kideren batentzat interesgarriak izan daitezkeen jarduerak eta/edo programak ezagutzeko.
- Saioen dinamizazioan, jardueren garapenean eta taldeko kideen parte-hartzean genero-ikuspegia txertatzea.
- Dinamizatzen duen zerbitzuaren balorazioa egitea hiru hilean behin, eta urteko memoria idaztea. Memoria horretan jasotakoa emakumeak eta gizonak bereizita aurkeztuko da; gainera, emakumeei eragiten dien desberdintasun soziala prestazioan nola hartu den kontuan jasoko da, eta ikuspegi komunitarioa txertatuko da. Txostenetan, hobekuntza-arloak identifikatu eta proposamen zehatzak egin beharko dira.
- Erabiltzaileari oinarrizko ekintzetarako behar duen laguntza puntuala ematea (komunera joan, arropak erantzi/jantzi, momentuko garbiketa...).

Eginkizun horiek beteko dituen pertsonalak honako titulazioa duela egiaztatu beharko dute lizitatzaileek: Gradua edo Diplomatura Gizarte Hezkuntzan, Gizarte Lanean edo Gizarte Zientzietako arloren batean (besteak beste: Okupazio-terapia, Irakasletza, Pedagogia, Psikologia, Psikopedadogia...), edo Goi-mailako Heziketa Zikloa Gizarteratze Teknikari gisa.

Pertsonalak, gainera, adineko pertsonekin animazio eta esku-hartze sozialeko berariazko prestakuntza izan beharko du, gutxienez 100 ordukoa, eta euskarako C1 maila (EGAren parekoa) egiaztatu beharko du.

Positiboki baloratuko da genero berdintasunean eta indarkeria matxistaren prebentzioan edo esku-hartzean formazioa izatea.

9.2.- Arduraduna: Enpresa esleipendunak, bere giza baliabideekin, lantaldeko arduradun bat egongo dela bermatuko du. Arduradun horrek honako zeregin hauek izango ditu: aholkularitza, orientazioa, zuzeneko esku-hartze pertsonalaren gainbegiratze teknikoa, Udalak eskatutako txostenak egitea eta Udalak eskatutako bileretan parte hartzea.

Arduradun horren lanaldia astean ordubetekoa izango da.

Figura horrek goi-mailako titulazioa izan beharko du esku-hartze sozialean edo gizarte-zientzien esparruan (gizarte-hezkuntza, gizarte-lana, psikologia, psikopedagogia, pedagogia...).Halaber, euskarako C1 maila (EGAren parekoa) egiaztatu beharko du.

10.- ENPRESA ESLEIPENDUNAREN BETEBEHAR TEKNIKOAK

Derrigorrezkotzat jotzen da honako irizpide hauek betetzea:

- Udaleko Gizarte Zerbitzuekin lankidetzan aritzea taldea edo taldeak eratzeko eta zerbitzua abian jartzeko, eta haien jarraipena eta ebaluazioa egitea. Horretarako, eskatzen zaizkion bileretan parte hartuko du eta eskatzen zaizkion txostenak egingo ditu.
- Zerbitzuaren programazio orokorra diseinatzea eta kontratuaren arduradunari bidaltzea, gauzatu aurretik onar dezan.
- Zerbitzua emateko behar diren pertsonak kontratatzea, agiri honetan jasotako baldintzetan.
- Zerbitzua etenik gabe ematea, zerbitzuaren ordutegian eta arreta-egunetan. Bajak berehala ordezkatu beharko dira, eta aldez aurretik, kontratuaren arduradunari egiaztatu beharko zaio pertsonak baldintzak betetzen dituela.
- Zerbitzuan gertatzen den edozein gorabehera zuzenean jakinaraztea Gizarte Zerbitzuen Sailari.

- Langileen laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden lege-xedapenak betetzea, eta bere gain hartzea langileen lan-istripuei buruzko guztiaren erantzukizuna.
- Langileen puntualtasuna eta asistentzia kontrolatzea eta honen berri ematea. Era berean, garaiz iristeari edo denbora ez betetzeari buruzko kexak jasotzen direnean, gertatutakoa ikertu beharko du eta horren arabera jokatu.
- Egiten dituen lanen eta ematen dituen prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaz arduratzea, bai eta kontratua gauzatzean omisio, akats, metodo desegoki edo erabaki okerren eraginez administrazioari edo hirugarrenei sortzen zaizkien ondorioez ere. Erantzukizunetik salbuetsita geratuko da, soilik, antzematen diren akatsak Administrazioaren agindu baten edo hark ezarritako baldintzen ondorio zuzenak direnean.
- Zerbitzuko profesionalak egiten duen lanaren jarraipena eta ikuskapena egitea.
- Zerbitzuaren urteko balorazio orokorra egitea. Balorazio hori txosten batean jasoko da, eta kontratuaren arduradunari aurkeztuko zaio.
- Plangintzan aurreikusitako jarduerak garatu ahal izateko behar den material suntsikorra hornitzea.
- Zerbitzua hilero fakturatzea.
- Erositako material espezifikoaren kostua Udalak ordainduko du, aparteko faktura baten bidez; alegia, hileroko fakturaz gain, materialagatiko faktura aurkeztu beharko du adjudikazio-hartzaileak.
- Positiboki baloratuko da 50 pertsona baino gutxiagoko enpresek Berdintasun Plan bat izatea.

11.- BALIABIDE MATERIALAK

Udalaren ardura izango da zerbitzua emateko lokalaren funtzionamendu zein mantentze-gastuak bere gain hartzea. Halaber, zerbitzuaren eskura jarriko ditu oinarrizko espazioak eta altzariak.

Materialari dagokionez, enpresak ardura hauek hartuko ditu bere gain:

- Eskulanetarako behar den material suntsikorra erostea eta eskura jartzea.
- Beste jarduera batzuetarako materiala erostea eta eskura jartzea (mahai-jokoak, bisitak,…)
- Zerbitzuaren eskura jarritako osagaiak eta materialak egoera onean mantentzea.

Material hori erosteko, Udalak gehienez 2.500 euroko aurrekontua onartuko du urteko. Enpresa arduratuko da materialak eskuratzeaz eta ordaintzeaz, Udalak oniritzia eman ondoren, eta egindako gastuen egiaztagiriak aurkeztuko dizkio Udalari, urte horretako mugarekin, hark enpresari ordainketa egin diezaion.

Materialaren hasierako inbentarioa egingo da, eta urtero eguneratuko da.

12.- HIZKUNTZA BETEBEHARRAK

12.1.- Zerbitzua emango duten langileen euskara-gaitasuna:

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila egiaztatu beharko dute zerbitzura atxikitako langile guztiek (bai zuzeneko esku-hartzea egingo duten langileek bai lantaldearen arduradunak).

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna. Hori egiaztatzeko, honako bi bideak erabili ahal izango dira:

- Dagokion ziurtagiria, titulua edo diploma aurkeztea, egoki den erakunde publiko edo zentro ofizialean egin eta emandakoa, edo
- Udalak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Subrogazio kasuetan, langileek betetzen ez badute eskatutako hizkuntza-gaitasuna, kontratua euskaraz gauzatu ahal izateko beharrezko neurriak adostuko dira, herritarren eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatze aldera.

12.2.- Hizkuntza paisaia:
Zerbitzua emango den lekuan, hizkuntza paisaia osatzen duten kartel, ohar eta gainerakoak euskara hutsean egingo dira testuaren grafia bi hizkuntza ofizialetan oso antzerakoa denean. Gainerakoetan ele bitan egingo dira, euskarari lehentasuna emanez.

12 3. Hizkuntza ofizialen erabilera:

a) Zerbitzu hartzaileekin:

Ahozko harremanak: Zerbitzua ematean, bermatu eta erraztu egingo da herritarrek arreta euskaraz jasotzeko eta euskara erabiltzeko duten eskubidea. Hortaz, bada, zerbitzua euskaraz izatea eskatzen duten erabiltzaileei hala eman beharko zaie.

Idatzizko harremanak: Zerbitzuaren erabiltzaileak aukeratu duen hizkuntzaren arabera, enpresa esleipendunak euskaraz edo ele bietan idatziko ditu zerbitzua emateko sortzen dituen idatziak (inprimakiak, arauak, ariketak, oharrak, jarraipen txostenak, esku-hartze plana…). Ele bitan eginez gero, euskarari eman beharko zaio lehentasuna, eta enpresak berak egingo ditu itzulpenak.

b) Udalarekin: Udalaren eta esleipendunaren arteko ahozko zein idatzizko komunikazio mota guztiak euskaraz izango dira, izan harreman administratiboak (kontratu, faktura, ...), izan zerbitzua ematetik sortutakoak (zerbitzuaren programazioa, balorazioa, urteko memoria, txostenak, koordinazio-bilerak…)

13.- GENERO ARLOKO BALDINTZAK

Kontratazio horrek nahitaez bete beharko ditu Aretxabaletako Udalak genero arloan onartuta dituen irizpideak.

Horrela, bada, kontratatutako erakundeak berdintasuna bermatuko duten neurriak ezarri beharko ditu (berdintasuna enplegua lortzean, pertsonen sailkapenean, sustapenean, iraupenean, prestakuntzan, ordainsarietan, lanaren kalitate eta egonkortasunean eta lanaldiaren iraupen nahiz antolaketan), eta baita kontratua gauzatuko duten langileen bizimodu pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateratzea erraztuko duten neurriak ere, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakume eta gizonen berdintasunerakoak, ezartzen duenari jarraituz.

Genero-ikuspegia une oro hartu beharko da kontuan kontratatutako lana gauzatzen den bitartean, erabiltzaileekin eta haien familiekin izango den harremanean, erabilitako dokumentazio guztian eta udalarekiko harremanetan, besteak beste.

Erabilitako barne zein kanpo erabilerako dokumentazio guztian (programa aurkezteko idazkiak, galdetegiko testuak, txostenak, etab.) hizkuntza eta irudi ez-sexistaren irizpideak aplikatu beharko dira, hizkuntzaren eta irudien erabilera inklusiboa eginez. Emakumeen eta beste edozein kolektiboren irudi diskriminatzaileak eta estereotipo sexistak ekidin beharko dira.

Ildo beretik, kontratuaren diseinuak eta exekuzioak genero-ikuspegia jaso beharko dute diagnostikoan, helburuetan, jardueretan eta ebaluazioan. Era berean, amaierako justifikazioak genero-eraginari buruzko memoria bat izan beharko du, erabiltzaileen sexuaren arabera bereizitako adierazle eta datuekin, eta generoaren araberako egoerarekin.

14.- BESTE ALDERDI BATZUK.

1.- Kontratatutako zerbitzuak administrazioaren ikuskapenaren eta zaintzaren mende egongo dira beti. Ikuskatze lanaz arduratzen diren langileek, eta Gizarte Zerbitzuen Sailak berak, hala badagokio, zerbitzuaren antolamenduari buruz behar dituzten datu guztiak eskuratu ahal izango dituzte, eta erakunde esleipendunak eskatzen zaion informazio guztia eman beharko du.

2.- Gizarte Zerbitzuetako teknikari arduradunek aldizkako bilerak eta beste jarraipen-sistema batzuk sustatuko dituzte erakunde esleipenduneko arduradunarekin, zerbitzuaren kudeaketari eta martxa orokorrari buruzko informazioa eta dokumentazioa biltzeko eta jarduketak koordinatzeko.

3.- Enpresa esleipendunak pertsonalaren etengabeko prestakuntza bermatuko du, birziklatze profesionaleko ikastaroen bidez.

4.- Kontratu honetan ezarritakotik kanpo, kontratua behar bezala garatzeko eta betetzeko beharrezkotzat jotzen diren zerbitzuak eman beharko dira, ordainketa osagarrirako eskubiderik gabe; hala nola, informazioa emateko lan-bileretara joatea.

5.- Erakunde esleipendunak neurri teknikoak eta antolakuntzakoak hartu beharko ditu, erabiltzaileen konfidentzialtasuna eta intimitatea bermatzeko, bai eta enpresa esleipendunak kontratatutako zerbitzuei buruz jakin ditzakeen datu guztien konfidentzialtasuna bermatzeko ere, eta datu horien sekretu profesionala gorde beharko du. Enpresa esleipendunak kalte-ordaina eman beharko die Udalari eta eragindako pertsonei, isiltasun profesionalaren betebeharra urratzeagatik sortutako kalte- galerengatik. Enpresa esleipendunak, kontratua betetzeko beharrezkoak izan daitezkeen tratamendu automatizatuko datu pertsonalak erabiltzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa beteko du.

CONDICIONES TÉCNICAS PARA LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO DEL ESPACIO DE PROMOCIÓN DE LA AUTONOMÍA PARA LAS PERSONAS MAYORES DE ARETXABALETA.

1.- OBJETO DEL CONTRATO

El presente Pliego de Condiciones Técnicas tiene por objeto exponer las condiciones del servicio del Espacio de Promoción de la Autonomía para la población mayor del municipio de Aretxabaleta.

La Ley 12/2008, de Servicios Sociales, establece el Servicio de Atención Diurna como parte del catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales y determina que es un servicio de atención primaria (artículo 22.1.2) cuya prestación debe ser garantizada por los Servicios Sociales municipales.

El servicio que se preste en el espacio para la promoción de la autonomía debe contribuir al mantenimiento de la autonomía de las personas usuarias y, dada la importancia que, en esa función y en la calidad del propio servicio, tiene que los usuarios sean atendidos en su lengua materna, deberán garantizarse los derechos lingüísticos de las personas usuarias en la prestación del servicio. De hecho, el lenguaje es un elemento fundamental en la atención sanitaria, y en este sentido es imprescindible que las personas usuarias puedan ser atendidas en la lengua en la que mejor expresen sus necesidades.

El concurso se regirá por las disposiciones contenidas en este pliego y en el de condiciones económico-administrativas.

2.- NORMATIVA APLICABLE

El servicio se prestará de acuerdo con lo establecido en:

- ✓ Pliego de Condiciones Técnicas y Pliego de Condiciones Económico-Administrativas.
- ✓ Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales.
- ✓ Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.
- ✓ Decreto 64/2004, de 6 de abril, por el que se aprueba la Carta de Derechos y Obligaciones de las Personas Usuarias y Profesionales de los Servicios Sociales en la CAPV y el Régimen de Sugerencias y Quejas.
- ✓ Decreto Legislativo 1/2023. El Texto Refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Lucha contra la Violencia Machista contra las Mujeres, aprobado el 16 de marzo.
- ✓ Reglamento Municipal regulador del Servicio de Atención Diurna (aprobado por el Pleno Municipal el 15/05/2024, BOG 12/07/2024).
- ✓ Contrato de prestación de servicio.

3.- OBJETIVOS DEL SERVICIO

Apoyar a las personas mayores de 65 años en situación de vulnerabilidad y fragilidad y/o dependencia leve en el municipio de Aretxabaleta, para que puedan continuar su vida habitual y mantenerse activamente en la comunidad, paliando, en su caso, las situaciones de aislamiento y soledad.

Reforzar el funcionamiento social y relacional para evitar su deterioro y/o empeoramiento: fomentar la comunicación y el sentimiento de pertenencia al grupo, evitando el aislamiento social, y promoviendo estrategias para afrontar posibles conflictos relacionales.

